

2. Euskara batuaren sorrera eta garapena

1. jarduera: Testuinguru sozio-politiko eta kulturala: Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo hamarkadak

Irakurgaia: Aguirre Sorondo, J.I. (2018), “Bi kulturak”. In Eusko Ikaskuntza, *Euskaldunon Mendea. 1918-2018*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Galderak:

1. Euskalgintza eta euskal kulturgintza ze egoeratan geratu ziren frankismoa ezarri ondorengo lehen urteetan? Nola lortu zuen hori frankismoak?
2. Azal ezazu Euskaltzaindiak eta Euskalerriko Adiskideen Elkarteak nola berrekin zioten jarduerari 40. hamarkadan eta ze emaitza eman zituen euskararen eta euskal kulturaren sustapenari dagokionez.
3. 1948an erabaki zuten abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izango zela. Azal ezazu erabaki hori ze erakundek hartu zuen, ze ekitalditan, eta ze baldintzatan egin zen erabakia hartzeko ekitaldia.
4. 1950. hamarkadan geopolitikako erabaki batzuk hartu ziren Espainiako estatuari dagokioez. Oso kaltegarriak izan ziren euskal komunitatearetzat. Azal ezazu zein diren erabaki geopolitiko horiek.
5. Zein izan zen Ameriketako euskal diasporaren ekarpena euskararen eta euskal kulturaren sustapenari begira 50. hamarkadan hasita?
6. 1950. hamarkadako hondarrean hasita, euskalgintzan eta euskal kulturgintzan “belaunaldien arteko haustura” gertatu zen. Zer esan nahi du honek?
7. Demografiaren ikuspegitik, zein izan zen 1950 ingurutik 1975 ingura arteko bilakaera orokorra Hego Euskal Herrian?
8. Euskarazko eskolatzeari ekin zitzaion berriz ere 1950 urtearen inguruan. Zein datu ematen ditu Agirrek?
9. 1960. hamarkadatik aurrera euskal kulturgintza berpizten ari zela erakusten duten zein datu ageri dira Agirrerren testuan?